

BOOBIZI

Funtsezko baliabideak

Lehenik eta behin, baliabide fisikoei dagokienez, gure produktuak ekoizteko makineria eta tresneria erabiliko dugu, eta baita lehengaiak ere. Hasiera batean, produktuak etxean ekoiztuko direnez, ez da beharrezkoa izango makina asko eskura izatea. Hori dela eta, Annek, gure enpresaren bazkide bat, duen makinak 6000 balio duena nahikoa izango da. Horrez gain, erabiliko den tresneria: orratz, hari, jostunen guraizeak, oihala markatzeko klarionak, papera diseinuak egiteko, eta marrazteko materiala izango dira. Beste aldetik, beharrezko lehengaiak izango dira: oihala, bularretako loturak eta betegarriak. Hau diseniaren arabera alda daiteke, diseinu batzuk oihal edo beste material gehiago behar dituztelako, esate baterako, dentela.

Beste aldetik, hainbat baliabide intelektual ditugu. Laurok diseniatzeko ahalmena dugu. Baita, gazteak izanda, sare-sozialei buruzko jakituriak ere ditugu, beraz hauek maneiatu ahal ditugu gure kabuz arazorik gabe. Ekonomiako eta Administrazio eta Kudeaketa Prozesuko klaseak jasotzen ditugunez, finantzei eta marketinari buruz ere dakigu. Honek finantza arloan lagunduko digu gure kontuak eta negozioak kudeatzen. Gainera, lehenago aipatu bezala, funtsezko elkartearen PDF-an, gutako bakoitzak trebesia edo ezaugarri bat dauka baliogarria izango dena proiektua abian jartzeko eta martxan mantentzeko.

Giza baliabideei dagokienez, enpresa haztean, gutaz gain, ondo legoke langile batzuk kontratatzea. Gustatuko litzaiguke gurekin lanean arituko lirateken jostunen zati handi bat bularretako minbizia izan duten emakumeak izatea. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi beste langile batzuei *boobizi*-n lan egiteko aukera emango ez diegunik; enplegua bultzatzea ere asmoa baitugu, baizik eta gure bezeroak izan daitezkenak lehenespena izango dutela, besterik ez. Emakume hauei laguntzea gure lehentasuna delakoan gaude, eta horregatik, bularretakoak saltzeaz gain haien bizitza eta gizartean integratuta sentitzea erraztu ditzaketan jarduerak eskaintzea nahiko genuke.

Diru-iturrien PDF-an esan bezala, gure proiektua hasiera batean guk finantziatuko dugu, bakoitzak 5.000 € jarriz eta Annek 6.000€-ko balioa duen makina ipiniz. Baita crowdfunding-a ere erabiliko dugu gure finantza-baliabideak handiagoak izateko. Gainera, gure enpresaren %5-a AECC-rena denez, haiek onartzekotan,

finantziazioan lagunduko gintuzkete. Azkenik, behin proiektua martxan jarrita, baliabide falta izanez gero mailegu bat eskatuko genuke. Hala ere, gure diru-iturri nagusia salmentak izango litzateke.